

# Euskal Herria Bizirik topaketak eta manifestazioa deitu ditu larunbata honetan Azpeitian

---

ESTITXU EIZAGIRRE :: 09/04/2024

"Lurraldeari eta landa-eremuari erasotzen dioten makroproiektuekiko arbuio sozial zabala erakusteko" egingo da mobilizazioa eta Euskal Herriko 40 eragilek baino gehiagok egin dute bat deialdiarekin.

"Natur ingurumenaren suntsipenak ez du etenik, eta makroproiektu eoliko nahiz fotovoltaiko erraldoien ezarpenarekin gobernuek bultzatzen duten trantsizio energetiko korporatiboak krisi ekologiko eta sozialera eraman gaituen eredu desarrollista berberan sakontzen du", salatu du EH Bizirikek. Hala irakur daiteke ehunka herritarrek sinatu duten Megaproiektu berriztagarrien egungo hedapenaren aurka eta bizitzaren alde manifestuan: "Elite ekonomiko baten pribilegioak iraunarazten diren aldi berean, konponbide faltsuak eskaintzen dizkigute, egiazko konponbideek beharko luketena onartu gabe: oligarkia energetikoa erabat auzitan jartzea, hazkunde ekonomikoaren aginduarekin haustea, gure eredu produktibo eta energetikoa erabat eraldatzea, eta gure lurraldeen demokratizazioan sakontzea".

Azpeitian egingo dituzte topaketak eta manifestazioa, "Azpeitia, Zestoa eta Errezilgo mendi-lurretan Statkraft enpresa multinazionalak ezarri nahi duen zentral eolikoaren egitasmoa gelditzeko Sañu Bizirik taldea egiten ari den borrokarekiko sostengu osoa adierazteko".

## Egun osoko topaketak

Goizeko 9:45ean herriko plazan harrera egin ondoren, 10:00etan lau tailer hauek egongo dira zabalik: "Trantsizio energetiko korporatiboa eta megaproiektuak", "Krisi ekosozialaren testuinguruan agroekologiatik ekarpenak", "Euskal feminismoa lurraren defentsan eta "Bioaniztasunaren galera: kausak eta ondorioak".

12:00etan mahai-ingurua izango da Azoka Plazako aretoan, Aragoi eta Galiziako esperientziak ezagutzeko: Aragoiko Plataforma de defensa del territorio Cincovillas eta Galiziako Ecoloxistas Galicia Atlantica e Verde taldeek hartuko dute parte.

14:30ean bazkaria izango da (erreserba egiteko telefonoa: 676767516).

18:00etan manifestazioa abiatuko da herriko plazatik.

Egun osoan zehar ikusgai egongo da [Hamaika erakusketa](#) artistikoa Sanagustin kulturgunean, lurraldearen defentsan Euskal Herriko 11 ilustratzailek egindako lanak biltzen dituen.

Lurraren defentsan topaketak eta manifestazioa deitu ditu EH Bizirikek larunbata honetan Azpeitian ([argia.eus](#))

## **Manifestazioak oraingoz bildu dituen atxikimenduak**

Orain arte 40 eragile baino gehiagok egin du bat manifestazio deialdiarekin.

Nazio mailako hauek: Euskal Herriko Bilgune Feminista, EH Kontseilu Sozialista, EHKOlektiboa, Antikapitalistak, Sare Antifaxista, ESK eta Jardun Koordinadora.

Herrialde mailako beste hauek: Ostia taldea, CNT Gasteiz, Aleka, Zadorra Bizirik Elkarte, Hontza Ekarte, Bionekazariza, Biolur, NEE (Nafarroako energia eraldatzen), AHT Gelditu Nafarroa eta Gipuzkoako mendi taldea.

Eta tokian tokiko eragile hauek: Erdiz Bizirik, Aroztegia, Guggenheim Urdaibai Stop, Otxantegi Herri Lurra, Donostialdea, Oarsoaldea eta Bidasoaldeko AHTren kontrako herri/ekimenak, Aramaioko Talde Feminista, Arte Sarea, Basoa ( Defendatzaileon Etxea), Errekaleor, Azpeitiko gaztetxie, Orbeko Etxe autogestionatua, Lamingorriak, Ezkeltzu Bizirik, Elgoibarko Karakate Bizirik, Haize Berriak, Aiaraldeko Mendiak Bizirik, Makatzak Arratiako Ekologistak, Agiro Mendi Taldea, Anaitasua Mendi Taldea, Matxinkorta Mendi Taldea, ?Orkatzak Mendi Taldea, Lagun Onak, Sokaitz, Amalur Aguraingo Natura Elkarte, Aguraingo Garbiketako Boluntarioak, Juaristi enpresako langileak, Lasao auzokoak, Birika Permakultura, Eguzkiola eta Orbain kultur taldea.

---

<https://eh.lahaine.org/euskal-herria-bizirik-topaketak-eta>